



# Alkartu zaitez zuzentasunaren alde

## PLANETA zaintzen badozu POBRETASUNARI aurre egiten deutzazu

Kontsumoaren hazkundera oinarritutako garapen ekonomiko kapitalistaren eredu jasanezina da planetaren erritmo eta gaitasunagaz. Gainera gizarte desbardintasuna sortzen dau, ahulenen eskubideak urratuz, batez be estrategikotzat jotako baliabide naturalak jadesteko borroka globala jasaten daben herrialde txirotuetan.

Herritarreik, orokorrean, ondasun materialen kontsumo eta jaubetzaren inguruan eratutako balio batzuei eutsen deutzazu.

Planetaren zaintza (batez be klima aldaketa) agenda politikoan dagoela emoten dauan arren, eta COP21ean Pariseko Hitzarmena sinatzeko ahalegina egin badabe be, ezinbestekoa da benetako konpromisoa agintea (politikoa eta ekonomikoa) daben eragileen aldetik.

Aldaketaren aurkako joera nabarmena dago, "gauzak ez dirala hain larriak eta planetak baldintza honeetan luzaro iraun daikela" (*Laudato si'*, 59) arrazoiketa aitzakiatzat hartuz. "Baina nahikoa da errealidadeari zintzotasunez begiratzea, guztion etxearen hondaketa handia dala ikusteko" eta, gainera, "galera eta porrotaren zantzuak be antzeman daitezke" (LS, 61).



## Ingurumenaren hondatzeak bidebakokeria gehiago eragiten dau

Espainiako Caritas, CONFER, Zuzentasuna eta Bakea, Esku Elkartuak eta REDES (Garapen Solidarioarako Erakundearen Sarea) Espainian alkartasunaren alde jarduten daben Eleiza katolikoko bost erakundeok "Alkartu zaitez zuzentasunaren alde" kanpaina susperitzen dihardue 2012tik aurrera.



tez zuzentasunaren alde" kanpaina susperitzen dihardue 2012tik aurrera.

Aurton, *Laudato si'* entzilika oinarritzat eta adoretzat hartuta, 'alkartu zaitez zuzentasunaren alde' erakundeek kreazioa zaintzean jarri gura dabe arreta, "planeta zaintzen badozu, pobretasunari aurre egiten deutzazu" goiburuz.

Urte birako dan (2016ko ekainetik 2018ko ekainera) ekimen honegaz sentiberatasuna biztu gura da gaur egungo garapen-ereduak eta bizimodu batzuek planeta osoan eta, zehatz-mehatz, ahulenen bizi baldintzetan dabazan ondorioen inguruan.

Aldaketa be eragin gura dau, hainbat eremutatik, barkarkako eta alkarteko bizimoduetan eta erabagi politikoetan, gaur eta bihar, guk eta geroko belaunaldiek gizarte solidarioa eta herri guztientzat bizigarria dan planeta eraiki eta izan daigun.

"Mezu kateatuak" deitutako ekimen honetatik, mezu honen bidez, kanpaina hau zabaltu gura dogu, pobretasunaren ezabapenerako munduko egunagaz (urriak 17) bat eginik.

## HAMAR OINARRIAK

“Alkartu zaituz zuzentasunaren alde” kanpainan, besteak beste, aurrez aurre doguzan erronka nagusiak laburbiltzen dituan dekalogoaren erabiliko da.

Bi hilez behin, 10 oinarrietako bat landuko da hausnarketaren, otoitzaren, txirotuen lekukotasunaren konpromiso pertsonalen eta ekintzen proposamenen bidez.

Kanpainako lagungarriak eskuratzeko, orrialde honetara jo: [www.enlazateporlajusticia.org](http://www.enlazateporlajusticia.org)

- 1) Behartsuen auziaren alde egingo dozu (2016ko ira. – urr.)
- 2) Soiltasunaren balioa antzemango dozu barriro zeure bizitzan (2016ko az. – ab.)
- 3) Zeure eguneroko jokaeren garrantzia baloratuko dozu (2017ko urt. – ots.)
- 4) Gure munduaren aniztasuna estimatuko dozu (2017ko mar. – ap.)
- 5) Zeure buruaren, Eleizaren eta alkartearen bihotz-barritzea suspertuko dozu (2017ko mai. – ek.)
- 6) Beharrezko erabakiak bultzatuko dozuz, nekezak izan arren (2017ko uz. – abu.)
- 7) Ez dozu zure ekintza interes ekonomikoen menpe jarriko (2017ko ira. – urr.)
- 8) Zeure tradizio espiritualetan murgilduko zara (2017ko az. – ab.)
- 9) Adostasun zientifikoak onartuko dozuz (2018ko urt. – ots.)
- 10) Paradigma teknokratikoa gaindituko dozu (2018ko mar. – ap.)



### Proposamenak:

**Benetan, ba ete dago ingurumen-arazorik?**

**Hain garrantzitsuak ete dira?**

**Pobretasun eta desbaldintasunari lotuta ete dagoz?**

**Ze zerikusien dau guzti horrek gure bizimoduak?**

- “Alkartu zaituz zuzentasunaren alde” kanpainaren barri jaso orrialde honetan: [www.enlazateporlajusticia.org](http://www.enlazateporlajusticia.org)
- Emon kanpainaren barri adiskideei, komunitadeei, alkarteei...
- Parte hartu kanpainan, dekalogoaren arabera, bi hilez behin proposatuko dan hausnarketa eginez eta ekintzak garatuz.
- Parte hartu zure inguruan, pobretasunaren ezabaketaren aldeko munduko egunari lotuta, egingo diran jardueratan (berbaldiren batera joan, mobilizazioetan parte hartu...)